

# hondo-hondotik

Anjel Valdes

(Elkar-eko musika arduraduna)

## Midem eta euskal musikaren esportazioa

Cannes herria, Mediterraneoko perla delakoa, Cote d'Azur deritzan gunerik turistikoenetakoa ez ezik, urtean behin, munduko industria diskografikoaren Meca bilakatzen da. Aurten, 36. edizioa burutu delarik, lehen aldiz, Euskal Herriko diskografika gehienak modu bateratsuan bertan azaldu gara. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza ezinbestekoa gertatu da denok *Euskadiko Soinuak* izeneko stand baten babesean azalduz, bertan presentzia izan eta gure katalogoak zein ahalmenak erakutsi eta barreiatu ahal izateko. Cannesko Midem gunean esportazioak, inportazioak, lizenziak, kontratazioak eta, oro har, industria profesionalari dagozkion negoziatioak egiten dira. Merkatu-azoka hau musikako profesionalentzat soilik irekita dago, alegia, ez da Durangoko Azokaren modukoa, baizik eta disko zigiluak, produktorak, promotoreak, banatzaileak, editorialak, manager, fabrikak,....eta abarrentzat, musikaren alde exekutiboan lan egiten dugunontzat. Europan urtean zehar, beste merkatu garrantzitsu batzuk ere egiten dira: Womex, PopKom, Vic, estiloen arabera espezializatuagoak, baina denen artean Midem da handiena, anitzena eta indartsuena, horregatik Euskal Herrian produzitzen den musika katalogo guztiok, salbuespenik gabe, batera agertu gintezkeen *Euskal Herriko Musikaren* banderaren azpian. Helburu nagusia gure musikaren esportazioa izan da.

Gure herrian kokatzen diren disketxe guztiok, modu batean edo bestean, esportazioa-

ren beharra dugu aspalditik eta saiakera ugari izaten dira, bai disketxe zein artisten alde, produktioak esportatu eta kanpoan promozionatzeko. Anbizio naturala dugu honakoa zeren, musika, mugarik gabe barreiatua izateko sortzen da eta ahalik eta pertsona gehienengana iritsi ahal izateko produzitzen da. Euskaraz abesten den musikaren kasuan, Euskal Herria da territorio naturala eta hemen sortzen diren sinergiak, popularitateak, ospeak eta salmentak eremu honen mugetatik at ez dira gertatzen. Nahiz kasu konkretu eta urri batzuetan kanpoan errepresentazio minimoa eduki, euskal musika-produktoen errentagarritasuna, Euskal Herrian bilatu behar dugu eta honek okupatzen gaitu denbora gehiena, lehenetasun urjentea delako, produktioak epe laburrean orekatu behar direlako, alegia. Esportatzearen lanak, hau da, musikarentzat naturalak ez diren beste territorio batzuetan buzeatzea eta saltzea,....epe luzeagoan kokatzen da eta honek, epe luzeari begira, zenbait inbertsio aurreratu behar direla suposatzen du. Azken finean, esfortzu handia suposatzen du guztiontzat, han kanpoan mundu handia dagoelako eta bilaketa horretan, askotan tronpatu, ekibokatu egin zintezke eta pista berrien bila hasi behar dugu berriro. Horregatik, esportazioa laguntzeko, subentzio publikoak ezinbestekoak gertatzen dira. Musika betidanik, herrien eta kulturen enbaxadorerik onena izan ohi da eta, azken finean, gurea kanpoan barreiatzen bada, salmenta eta etekinak handitzeaz batera, gure kultura ere zabaltzen da eta he-

mentxe batzen dira disketxeon interes industrialak eta Kultur Sailaren interes kulturalak. Esportatzea arrantzaren modukoa da, amu ugari bota behar dira arrain txiki eta gutxi batzuk harrapatu ahal izateko. Irabazi ahal izateko erresistitzen ikasi behar da, etsitu gabe. Amuaren aukeraketa garrantzitsua izaten da. Hainbeste milioi erreferentzi argitaratuta dauden mundu batean, besteentzat erakargarri gertatzea ez da erraza eta, lehen-dabizi, gure katalogoak galbahetu behar ditugu, zerbaitengatik berezi, autentiko, sinesgarri diren produkzio horiek aukeratzeko asmoarekin. Diferentzia da salmentaren oinarria.

Hara joandako guztiok jakin badakigu, aurtengo Midemean sortutako kontaktoak gero hemen landu behar direla eta poliki-poliki harremana garatu, arrisku guztiak minimalizatzuz eta garantiak handituz. Aurtengoaren arrakasta, hurrengoetan datza, alegia, industria-kultura bikote honek loturik jarraitu beharko luke hurrengo Midem edizioetan eta horrela jarraipena bermatu. Honelako azoketan, era berean, oso gauza probetxagarriak ikasten dira bai produktoa zein horren salmentaren marketinari buruz eta, beraz, gure produkto eta metodoak aldatzeko erreferentzi berriak eta neutroagoak topatuz, gure ofizioa profesionalago bihurtzen da

Salmentak, orokorrean, jaitziz doaz, denda txikien ixteak merkatu libre eta independentea izorratzen du alderik alde. Fenomeno hau mundu osoan gertatzen ari da: piratetia da une honetan gure fantasmari ilunena eta, nola ez, Midemeko kezkarik handienetakoa. Kontua ez da bakarrik euskal musika iadanik era industrialean pirateatzen dela baizik eta, kanpoko musikak pirateatzen direnean, gure herrietako musika denda txikiak ixtera kondenatzen dira eta denda horietan gure musika ere saltzen da, beraz, kanpoko nahiz bertako musika bat pirateatzen denean, gure industria kulturalari eta, beraz, gure kulturari kalte ikaragarria egiten zaio. Pirateatzearen delituan parte bi daude gutxienez: saltzen duena eta erosten duena, estafa bikoitza da alegia. Pirateoaren kontrako sistema teknikoak, batetik eta legeak bestetik, akabatu beharko lukete honekin; edozein modutara, globalizazioaren eragina nabarmenegia da gure esparruan

ere eta industria independentea eta minorizatuarentzat ondorio garrantzak dakartza: denda eta superfizie handien eskuetan erabat harrapatuta eta baldintzatuta gelditzen da industria independentea eta honekin batera, telebistaren eta medio ahaltsuen indarra dela medio, kon-

tsumoaren ohiturak aldatu dira. Gutxi batzuek kopuru handitan saltzen dute eta etekin ikaragarriak lortzen dituzte eta beste gehienok itsaso nahasi horretan ahal duguna egiten dugu oreka mantentzeko. Musikaren industrian ere, gizarte-politika-ekonomia-industria-bizitza arloko beste edozein ataletan bezala, txikien iraunkortasun ahalmena gero eta kuestionatuago dago. Aukera bakarra erresistitzea dugu.

### ERRENTAGARRITASUNA

**Nahiz kasu batzuetan kanpoan ordezkaritza minimoa eduki, errentagarritasuna Euskal Herrian bilatu behar dugu**

## Miguel Buen Lacambra

(Errenteriako alkatea)

## Gogoetak PSE-EEren ezohiko kongresua dela eta

Ez zitzaidan egokia iruditu Nicolas Redondok erabakitzea kargua utzi eta alderdi hau ezohiko kongresu batera eramatea. Askoz egokiagoa izango zen Konferentzia Politikora deitzea, pertsoenez, izenez eta abizenez baino gehiago, ideiez, kontzeptuez eta etorkizunaz eztabaidatzearen. Alderdiak M-13ko hauteskunde inguruan erabilitako estrategia ez dakit egokia izan zen, baina badakit erabil zitekeen bakarra izan zela. Ez dezagun ahanzt nola iritsi ginen hauteskunde horietara: Alderdi Sozialista Eusko Jaurlaritzatik kanpo zegoen; EAJ edozein estrategia autonomistatetik kanpo zegoen, eta guztiz murgilduta Lizarrako Itunaren ondorioz sortutako subiranotasunaren aldeko espiralean; ETAk, egun batean bai eta hurrengoan ere bai, gure zinegotzi eta kargu publi-

koak erailtzen zituen, bai eta PPkoak ere... Ezin genuen alde batera utzi egoera hori, eta gure oinarriko jendeak, gure buruzagiek zuzendu behar zuten. Baina, nola? Gure egoera estrategikoa txarra zen, argi eta garbi geunden EAJ independentistaren aurka, eta PP itsututa zegoen.

Ez da unerik egokia ikusteko zertan huts egin dugun. Egia baita huts egin dugula, afiliatu ugariaren ustez Alderdi Popularrari jarraitu *besterik ez* dugulako egin. Ezin dugu jokatu eskuinaren esparruan, alderdi sozialdemokrata, ezkerreko eta aurrerazalea garelako. Baina nazionalismoaren esparru kontzeptualean ere (autodeterminazioa, burujabetasuna, subiranotasun partekatua...) ez dugu jokatu behar, esparru horretan beti galduko dugulako; ez da gurea. Sozialistentzat (edo, hobeto esateko,

demokrata guztiontzat), erabateko lehenetasun bat dago Euskadin, nazio eraikuntza delakoaren gainetik: bizitzeko eta aske izateko eskubidearen errespetua eta defentsa.

Ezin dugu jarraitu *Stockholmeko sindromea* delako horren mende, hau da, gobernuari, edozein izanik ere, dela EAJkoa dela PPkoa, eusten dion indarra izaten, ezta gobernarritasunaren izenean ere, askotan aitzakia gisa erabili baita. Botere alternatiba, gobernu alternatiba gara eta izan behar dugu, hemen bezala Madrilan ere. Geure postuluak ditugu, geure ideiak, eta hitzartu beharreko guztia hitzartuko dugu, baina ez ditugu baztertuko guretzat funtsezkoak diren kontzeptuak, hala nola bizitzeko eskubidea –beste edozeinen gainetik–, joko arauen errespetua, hau da, Konstituzioarena eta Estatutuarena, jakin badakigun arren ez direla testu sakratuak, eta alda daitetzkeela; hala ere, aldatzearekin ados gaudenean esango dugu aldatzeko, eta ez batzuek edo besteek esaten digutelako. Inongo batzokitara ez gara joango belauniko, ez eta modu berean PPren inongo egoitzatara ere. Behar diren leketara burua tente joango gara, ideiak argi ditugula, horietan guztiz sinesten dugula. Ezin dugu egun guztia igaro hitz egiten etorkizuneko eraikuntza na-

zionalez, federalismo *asimetriko* edo *sime-trikoez*, jatorrizko eskubideez; are gutxiago, bitartean alde batera uzten baditugu geureak diren beste politika batzuk, geureak diren beste bandera batzuk: eskola publikoaren defentsa, elebitasun integratzailea, langileen defentsa, erdi mailako klaseena, bakearen eta askatasunaren aldezipena, nazioarteko lankidetzak, lurralde honen eta dituen berezitasunen defentsa, baina betiere Espainiaren eta Europaren barruan...

Eta, azkenik, argi utzi behar dugu gure aurkariak, gure etsaiak ez daudela Alderdi Sozialistan. Gure aurkariak EAJ, EA, PP, IU eta abar dira. Gure etsaia faxismoa da, intolerantzia, erailtzen gaituena, era iraingarri honetan bizitzera behartzen gaituena, hitz batean, ETA eta babesa ematen diona.

Ahalegin handia egin beharko da Alderdian –diotenaren arabera– dauden bi *arima* horiek batzeko. Bi arima, bi sentsibilitate horiek gehiago dute batzen dituenetik, bereizten dituenetik baino. Labur esanda, Kongresuak borondateak batzeko balio behar du, gizartearen aurrean gure proiektua posible eta sinesgarri egiteko, hori baita kontua, benetako garrantzia duena.